

Garbine Ubeda Goikoetxea

## Herri eriak



rain dela hogei urte erori zen Berlingo Harresia. Iragan are urrunagokoa dirudi bi aldeetako erkideen besarkatze emozionatua ilustratzen duten irudi ajatuak bistartzen baditugu. Edo, efektuzko kolpearen bila, ondoren heldu diren gertakari esanguratsuak erreparatzen hasten bagara.

Zenbat kontu eta datu, zenbat protagonista, zenbat kontzeptu eta tresna, komunismo hondoratuaren sinboloa itxuratu zenez geroztik. Nelson Mandelaren askapena, Kroazia eta Lituania edo Eslovenia bezalako herrien independentzia; gerrak eta gerrak, gerra zahar-berriak, Golkokoa, Bosnia-Herzegovinakoa, Irakekoa; Intifadak, Talibanak, New Yorkeko Dorre Bikiak eraitsiak; indarkeria nuklearra, birus suntsitzaile berriak; atentatuak, su-etenak, bake-prozesuak, ilegalizazioak, egunkarien itxierak; Kyotoko zein besteko protokoloak eta Goi bilerak; Hugo Chavez, Sarkokrazia, euroa, telefono eramangarriak, Internet; berotze efektua, ekologismoa, globalizazioa, altermundialismoa, kapitalismoaren krisia... Abiada biziko kronologiak edo poker partida bateko karta markatuak, nondik begiratzen zaien.

1989ko hesi urratze hura Frantzia eta Espainiaren arteko muga fisikoak europartasunaren ize-nean ezabatzearekin parekatzen dut nahi gabe; bi estatuen mugarri ziren aduanak, zaindari uniformatuak, aldiko karneta erakusteko lanak bertan behera gelditu zirenekoarekin. Orduko sentsazioak, Irundik harakoekin oztoporik gabe elkartzeko itxaropenak, hizkuntzak batuko gaituen amets mitifikatuak eta gainerakoak inozo eta kasik ergel ageri dira hainbeste urteren buruan.

Gaur, muga fisikorik gabe ere mugak inoiz baino handiagoak diren honetan, kilometroa baino unitate argigarriagoa behar genuke Bidasoaren alde batekoak nahiz bestekoak bereizten dituen urruntasuna neurtzeko. Eta dekodifikatzaile filosofiko-linguistiko bat, "Iparralde" edo "Bestalde" deituriko kontzeptu hutsalean zakutu duguna ezagutzeko. Errazkeriak, esango nuke, lurralde zati baten



DANI BLANCO

guretasuna errefusatzera eraman gaitu oharkabea, eguraldi-mapak osotasunean eskaintzen saiatzen baldin bagara ere.

Sagardotegiak frantziarrez bete direla esaten dugu sasoiaren denean, Hernani-Astigaragara heldu diren autobusak nagusiki lapurtarrek bete izan dituztenean ere. Bilbo aldeko erdalduak izan baitaitezke gutarrak, besteak aldiz, ez. Euskaraz egiten duten apur horien mintzaira itsusiagoa dela, ulergaitza eta arrunt frantsesua dela entzun izan dut aspaldion, geure erdarakadei jatorria labela aitortu beharko bagenie bezala. Frantzian zer moduz bizi ote naizen galdetu dit abertzale —eta ezkerreko— batek baino gehiagok, atarikoan "ulalaka" eta "madamka" eginez, Hendaia aldatu nintzela jakin dutenez geroztik. Eta asaldatu egin izan zaizkit, nire umore beltzaz harritu, "zu Espainian bizi zaren bezalatsu" erantzun izan diedanean.

*No man's land* dirudien herri txiki honetan gauzak ez dira hobeak, erraz imajina daitekeenez. Ez noa Hendaia gogoragokoen duten pertzepzioa aipatzera. Nire frantses kaxkarra gaztigatzeko, "Espainiolak Espainiara!" erantzun zidan nerabe koadrila batek joan den egunean, haur txikiez mukurru beteta zegoen jolastokian patineteak alboan uzteko eskatu nien. Are ozenago errepikatzen zidaten esalditxo gero, astakeria hori entzunda, nire hizkuntzan "oraindik horrelakorik!" eta beste hainbat purrustada erremedio gabeki atera zitzaizkidanean. Arabieraz egin zidan trufa orduan horietariko batek. Hitzik ulertu gabe ere, "hemen hizkuntzak ez dizu nortasun berezirik ematen, atso espainol tuntuna" zirudiena interpreta zitekeen tonuagatik, keinuengatik, "frantsesok soberan ditugu zeu bezalakoak". Tamalez, ez da lehen aldia horrelako atakan aurkitzen naizena.

Premiazkoa zait *Alemania batzueko tratatu* ofizialaren parekoa. Behar bezain ona izango ez bada ere. Premiazkoa zait lurraldetasunaren eta bereziki hizkuntzaren bidez heldu beharko litzaigukeen aitortzea, estatusa, estatua. Jolastokietan ere makurkeria politikoak aditu behar ez izateko. ■

Frantzian zer moduz bizi ote naizen  
galdetu dit abertzale batek baino  
gehiagok Hendaia aldatu nintzela  
jakin dutenez geroztik. Eta asaldatu  
egin izan zaizkit, nire umore beltzaz  
harritu, 'zu Espainian bizi zaren  
bezalatsu' erantzun izan diedanean